

Ezustean iristen diren konexioez idatzi du Nerea Baldak bere bigarren nobelan

Ramiro Pinilla lehiaketan saritutako 'Azpimarrak' argitaratu du Ereinek.

Harri X. Fernández | @harrifernandez

19-05-23 | 21:42



Nerea Balda. / RUBEN PLAZA

Ustekabeko topaketak eta maitasuna zentzu zabalean, horiek dituzte Nerea Baldak, Ereinen eskutik **Azpimarrak** izenburuarekin argitaratu berri duen bigarren nobelan. Balda Donostian izan da gaur, ostiralarekin, bere eleberria aurkezteko, **Uxue Razquin** editorearekin batera. Ustekabeko hori, kasu honetan, objektu bat da, azpimarrak beteriko bigarren eskuko liburu bat. Selvak, ama izan nahi duen emakume batek, ahaztutako liburuki bat aurkitu du autobusean. Beste ustekabe bat: aurreko jabea, gaztetan ezagutu zuen Andreu mutila da. Hasiera-hasieratik narrazioaren abiapuntua oso argi izan zuela azaldu du egileak.

Hirukiaren hiru ertz horiekin, alegia, iraganean ezagutu zen bikote bat eta orain aldiari batu dituen bigarren eskuko liburuarekin, "ipuintxo" bat idatziko zuela pentsatu omen zuen. Pertsonaiak deskribatu ahala, zenbait "hari mutur" sortu zitzaizkion, eta horiei tiraka etorri zen iragan urtean **Ramiro Pinilla sariketan irabazle suertatu zen eleberria** –Getxoko lehiaketa hori irabazi duen bigarren aldia da; bere lehen eleberriak ere, *Atzerrian* (Pamiela, 2019), errekonozimendu berbera lortu baitzuen–.

Azken boladak sorkuntzan maiz gertatu ohi denez, pandemia garaia ere eragina izan zuen Baldarengan. Konfinatua zegoela etorri zitzaion idazten jarraitzeko grina. Ramiro Pinilla sarira aurkezteko epea laster zetorrela ikusita, epe hori konplizteko erronka ezarri zion bere buruari. "Batez ere, liburua bukatzeko helburuarekin hartu nuen bultzada hori; ez nuen uste bigarren aldiz irabaziko nuenik", aitortu du.

Narratzaile orojakilea erabili arren, atal bakoitzak jauzi egiten du Selva eta Andreuren kontakizunen artean, nolabait narrazioa "aberasteko" helburuarekin. Hain zuzen ere, eleberriaren egituraketan jarri zuten arreta berezia editoreek, bi ahotsak ondo orekaturik egon zitezen. "Lan polita izan da, irakurleari kontakizuna errazte aldera", esan du Baldak.

Gaiari dagokionean, eta aurreikusita ez bazuen ere, istorioa garatzeko garaian indarra hartu zuen maitasunaren kontzeptuak, modu zabalean. Bikote harremanaz jarduten da, horietan agertzen diren kezka eta beldurrez; baita familia osatzeko garaian sortzen diren amatasun eta aitatasun prozesuez ere.

LO MÁS VISTO

1. Lula sale en defensa de Vinicius y pide medidas "para evitar que el racismo se apodere del fútbol"
2. Vinicius: "El racismo es normal en LaLiga, España es conocido como un país de racistas"
3. Aretxabaleta acogió el Torneo Genuine
4. Se busca la 'Greta' vasca del activismo digital
5. "Ametsetako eguna bete zaigu"

TEMAS Erein - Literatura



Inscríbete a nuestra Newsletter
Disfruta de todas las novedades

Inscríbete

MÁS EN CULTURA



OPINIÓN
Señora de la limpieza
José Ramón Blázquez



CINE Y SERIES
'Atracción fatal' o el riesgo de reinventar un título mítico del cine
Julen Arriandiaga



CINE Y SERIES
El 'reality' de 'El juego del calamar' dará un bote millonario
NTM



CINE Y SERIES
Scorsese y De Niro triunfan con su defensa de los indios Osage
Alicia García de Francisco

GIPUZKOA ACTUALIDAD REALA DEPORTES ECONOMÍA OPINIÓN CULTURA VIVIR TENDENCIAS ON + IN

.eus Contacto Promociones Newsletters Publicidad Suscríbete a Noticias de Gipuzkoa



Otras webs de Grupo Noticias
Deia
Diario Noticias de Álava
Noticias Taldea Multimedia (NTM)

Diario de Noticias
Noticias de Gipuzkoa
Onda Vasca

Más información


Distribución
Mapa web
Tarifas de publicidad

Trabajos Impresión
Suscripción por RSS

Compartir el artículo



Compartir una noticia

-  Facebook
-  Twitter
-  LinkedIn
-  Whatsapp
-  Telegram
-  Correo electrónico